

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

PSIKOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE PSICOLOGÍA

# OSASUN PSIKOLOGIA OROKORRA MASTER-AMAIERAKO LANA

## MASTER-AMAIERAKO LANA

---

### 1.- EDUKIAREN DESKRIBAPEN LABURRA

---

Masterraren helburua da ikasleak Osasuneko Psikologo Orokorraren jardueraren alorrean beharrezko kalitate tekniko eta giza kalitatearekin lan profesionala gauzatu ahal izateko gaitasunak edukitzea, eta baita jardura horrekin lotutako ikerketari begira prestakuntza egokia edukitzea ere.

Master-amaierako Lana (MAL) egitean eta defendatzean argi geratu behar du Osasuneko Psikologo Orokorraren arlo aplikatuan, edo hala badagokio, ikerketarenean, ikasleek onura atera dutela eta lanean jardun dutela. Lan honek ikasleek lortutako trebetasun eta gaitasun guztiak irudikatzen ditu; esan nahi baita, prestakuntza-prozesu osoan lortutako heldutasuna eta maila zientifiko-teknikoa.

MALn, ikasleak erakutsi beharko du baduela gaitasun profesionala edo ikerketa- gaitasuna, osasun integrala hobetzeko prebentzio edo esku-hartze psikologiko eta psikosozialeko jarduerarekin lotuta.

Master Amaierako Lana Osasun Psikologia Orokorraren alorrean espezializatzeko prestakuntzaren azken urratsa da. Ikasleak ahoz azaldu behar du epaimahai baten aurrean, hark ebalua dezan. Defentsa publikoa da, eta epaimahaia masterreko hiru irakaslek osatzen dute. Bestalde, MALa masterreko bi irakaslek zuzendutakoa izan daiteke.

MALa masterreko zeinahi irakasgairi buruzkoa izan daiteke, eta lan zientifiko baten egitura izan behar du. Proiektu edo lan zientifiko bat egin, aurkeztu eta defendatzea du helburu, eta bertan ikasleak masterrean eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak adierazi behar ditu.

MALaren gai espezifikoak ikasleak berak aukeratzen du, masterreko irakasleek eman edo proposatutakoen artean edo honekin adostutako beste gai batean. Ikasleak lan mota hauen artean aukera dezake:

- Kasu praktikoak aztertu eta ebaluazio psikologikoko txostenak prestatzea. \*\*\*
- Esku-hartze indibidual edo kolektibo bat diseinatzea, eta hori ebaluatzeko metodologia.
- Ikerketa aplikatu bat egitea (edo ikerketa proiektu bat) datu enpirikoekin, masterreko modulu-tako gai baten gainean, Osasun Psikologiaren eremuan.
- Gai garrantzitsu baten errebisio teoriko bat egin osasunaren psikologiaren eremuan\*\*\*

\*\*\* Gizakiekin, haien lagin biologiko edo datu pertsonalekin egiten diren lan guztiak **ikerketa etikoaren batzordeak (CEISH)** ebaluatu behar ditu. Batzordeak aldeko txostena eman beharko du proiektua hasi aurretik, planteamenduak baldintza metodologiko, etiko eta legalak betetzen dituela ziurtatzeko. Zuzendari / tutorearentzat eta ikasleentzat, batzordeak ebaluatzeko prozesuak TFMaren hasieran atzerapena ekar dezake. Ikusi: <https://www.ehu.eus/eu/web/ceid/publicaciones>

## 2.- IRAKASGAIAREN GAITASUNAK

---

- Osasun integralaren kontzeptua barneratu, garatu eta praktikan jarri, osasunaren osagai biopsikosozialei leku eginda, OMEk finkatutako jarraibideekin bat etorrira.
- Jarduera profesionalean bioetikaren oinarriak eta gogoeta egiteko metodoa aplikatu, eta osasun-arloko profesional gisa jardun, osasun-arloko lanbideak arautzeko azaroaren 21eko 44/2003 Legean xedatutakoari jarraiki.
- Pertsonen artean komunikatzeko eta emozioak egokiro gobernatzeko trebetasuna izan arazoa identifikatzeko, ebaluatzeko, diagnostikoaren eta esku-hartzearen berri emateko eta jarraipen psikologikoak egiteko prozesuetan zehar eragin-truke eraginkorra gerta dadin gaixoeekin, familiekin eta erizainekin.
- Kritikoki aztertu eta informazio klinikoaren iturriak erabili.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili laneko egitekoetan.
- Txosten psikologikoak egin hartzaileentzat, modu egokian.
- Ikerketaren esparruko lan-hipotesiak egin, eta informazioa kritikoki jaso eta baloratu, arazoak konpontzeko, metodo zientifikoa aplikaturik.
- Osasun-arloko psikologo nagusiaren jardun-esparrua ezagutu eta dagokion profesional espezialistarengana bidaltzen jakin.
- Lana kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren ikuspuntutik garatu, lan profesional arduratsua izateko behar-beharrezkoa den autokritika egiteko gaitasunarekin.
- Komunikatzen jakin, baita beste profesionalekin ere, eta lana taldean eta jakintza- alor anitzeko taldeetan egiteko beharrezkoak diren trebetasunak menderatu.
- Osasun-arloko langileen betebeharrak eta erantzukizunak ezagutu, gaixoen datu pertsonalen babesari eta informazioaren isilpekotasunari dagokienez.
- Giza portaeraren izaera psikologikoa eta hartan eragina izan dezaketen gizarte- eta biologia-faktoreak ongi ezagutu.
- Giza portaeraren nahasmenduen izaera psikologikoa ongi ezagutu.
- Osasun- eta gaixotasun-arazoei lotutako faktore psikosozialak ongi ezagutu.
- Osasun- eta gaixotasun-arazoei lotutako faktore psikosozialak eta biologikoak ongi ezagutu, bereziki buru-osasunarekin zerikusia dutenak.
- Osasun Psikologia Orokorren esparruan eta osasun-arazoei lotutako faktore psikologikoetan ebaluazio eta esku-hartze ereduak ongi ezagutu, baita haietatik eratortzen diren teknikak eta prozedurak ere, portaeraren nahasmenduei aurre egiteko.
- Giza portaeraren eta osasun-arazoei lotutako faktore psikologikoen ebaluazio psikologikoaren prozesua planifikatu, gauzatu eta, hala behar duenean, ikuskatu, haien ebaluazioa zehaztu ahal izateko.
- Ebaluazio psikologikoan eta kasu bakoitzean gertatzen diren aldagai indibidual eta sozialetan oinarriturik, esku-hartze psikologikoko planak eta programak diseinatu, garatu eta, hala behar badu, ikuskatu eta ebaluatu.
- Enpresa bat osatzeko, abiarazteko eta kudeatzeko ezinbestekoak diren jarduerak ezagutu, baita forma juridikoak eta haiei atxikiriko lege-, kontabilitate- eta zerga- betebeharrak ere.

- Espainiako osasun-esparruan indarrean dagoen arautegia ezagutu.
- Norberaren eta komunitatearen osasun psikologikoa zaintzeko sustapen- eta heziketa-jarduerak egin.

### **3.- MASTER AMAIERAKO LANERAKO IZENA EMATEA ETA LANAREN DEFENTSA**

**Lanaren luzera eta ezaugarri formalak:** Lanak 30 eta 50 orri bitartean izango ditu. Gehienez ere 50 orri izango ditu (erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak kontuan hartu barik). Gomendatzen dugu honako ezaugarriok erabiltzea: lerroartea: 1,5; letra tipoa: Times New Roman; tamaina: 12 puntu.

**Zuzendaria:** Masterreko Batzorde Akademikoak tutore bat emango dio ikasle bakoitzari Master Amaierako Lana egiteko. Tutorea nahitaez izango da masterreko partaidea eta irakasle doktorea, baita Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratuduna edo bertako funtzionarioa ere. Lana masterreko beste irakasle batek edo masterreko irakasle izan gabe, izateko irizpideak betetzen dituen irakasle batek, kozuzendua izan daiteke

**Matrikula egiteko baldintzak:** MALerako matrikula 2. Ikasturtetik aurrera egin daiteke, horretarako masterra amaitzeko behar diren kreditu guztiak matrikulatu behar direlarik.

Bigarren ikasturtearen haseran (urria inguruan), ikasleek Lola Pérezi (masterreko idazkariari) jakinarazi beharko dizkiote MALaren izenburua eta zuzendariaren izena.

**Defentsarako baldintzak:** Oro har, MALa defendatu eta ebaluatu ahal izateko, egiaztatu egin beharko da ikasleak ikasketa planeko gainerako irakasgai guztiak gaindituta dituela da eta, hortaz, MALari dagozkion kredituak izan ezik, masterreko titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak dituela.

Hala ere, Masterraren Batzorde Akademikoak erabaki dezake, egoki joz gero, MALa defendatzea eta ebaluatzea masterreko titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kredituak gainditu baino lehenago, betiere ikasleak eskatzen badu eta ikasketa planeko gainerako irakasgai guztietarako matrikula egina badauka.

**Defentsarako deialdiak (epaimahaiak):** 1. deialdia ekaina haseran izango da, eta 2.a uztaila haseran. Bien artean gutxienez 30 eguneko tartea egongo da.

**Lana entregatzeko data:** Lau kopia paperean eta koadernaturik eta kopia bat CDan eman beharko zaizkio Lola Pérezi (masterreko idazkaria) lanaren defentsa baina 3 aste lehenago.

**Defentsa:** Lehen deialdikoak maiatzean egingo dira. Bigarren deialdikoak ekain-uztailean egingo dira. Ekitaldi publikoa denez, ikaskideak joan daitezke defentsara. Ikasle bakoitzak 10-15 minutu izango ditu aurkezpen bat egiteko PowerPoint erabiliz, eta minutu batzuk epaimahaikideekin eztabaidatzeko.

#### 4.- MASTER AMAIERAKO LANAK ANTOLATZEKO GIDA

### KASU PRAKTIKOAK AZTERTU ETA EBALUAZIO PSIKOLOGIKOKO TXOSTENAK PRESTATZEA

**AZALA:** Lanaren izenburua, eta ikaslearen eta zuzendariaren izenak.

**LABURPENA:** Egindako lanaren puntu nagusiak bildu behar ditu. Luzera: 300-500 hitz.

**KASUAREN TESTUINGURUA:** Kasuaren testuingurua zehaztu behar da (hezkuntza, testuinguru klinikoa-osasunekoa), norik eragindakoa den ebaluazioa...

**PERTSONAREN ETA FAMILIAREN DATUAK:** ebaluatua izango den pertsonaren izena eta harekin bizi diren guztien izenak, bai eta haien datu sozio-demografikoak ere: adina, ikasketa maila, lanbidea, maila sozio-ekonomiko-kulturala... (Atal hau egitean bete beharko dira dagozkion arau etikoak, adibidez ebaluatutako pertsonaren eta bere familiako izenak inisialez emango dira).

**EKINTZAREN HELBURUAK:** Ebaluazioa eskatzeko arrazoiak, arazoak edo sintomak. Faktore eragileak.

**BESTELAKO ARAZO EDO SINTOMAK** Elkarrizketetan edo historia klinikoan azaldu diren bestelako arazo edo sintomak, diagnostikoa edo ebaluazioa eskatzeko garaian arazoi edo arazotzat aipatu ez direnak.

**FUNTZIONAMENDUA POSITIBO EDO EGOKIKO ARLOAK:** Pertsonak egoki funtzionatzen duen arloak, eta eragin positiboa izan dezaketen testuinguruko faktoreak.

**ERABILITAKO EBALUAZIOKO TEKNIKAK ETA LORTUTAKO EMAITZAK:** Identifikatzea erabilitako tresna bakoitza (izena, egilea, argitalpenaren urtea), eta neurtzen dituen aldagaiak eta aldagai bakoitzeko puntuazio kuantitatibo estandarizatua (edo zuzena, tresna estandarizatuta ez bada), bai eta neurtutako aldagaien emaitzen interpretazioa ere.

**EBALUAZIOAN ZEHAR IZANDAKO PORTAERA:** Ebaluatutako pertsonak ebaluazio prozesuan izandako jokaera.

#### DIAGNOSTIKOA (ONDORIOAK)

- Lortutako emaitzetan oinarritutako diagnostikoa egitea.
- Diagnostikoa egitea sailkapen noseologikorako gaur egungo ereduak erabiliz (DSM/GNS). Hori osatu ahal izango da beste eredu batzuetan (psikodinamikoan, sistemikoan...) oinarritutako informazio diagnostiko esanguratsuekin.
- Diagnostikatutako trastorno edo arazoaren esparru kontzeptuala: Identifikatutako trastorno edo arazo zehatzaren informazioa: definizioa, eredu desberdinen arabera azalpen teorikoak.

## GOMENDIOAK

- Antzemandako arazoak konpontzeko orientazio zehatzak.
- Esku-hartzearen xedeak, eta haien lortzeko proposamen edo gomendioak. Adibidez, proposatzen da programa bat trebetasun sozialak, autoestimua, eta trebetasun kognitiboak/sormena lantzeko, emozioak identifikatu, ulertu eta erregulatzeko gaitasuna garatzeko, haserrea kontrolatzen ikasteko, depresio sentimenduak edo herstura gutxitzen ikasteko eta abar.

**ERANSKINA:** Diagnostikoa eta gomendioak egiteko erabilitako kasuaren material jatorrizko guztiak jaso behar ditu. Adibidez:

- Ebaluatutako pertsonaren baimen informatua.
- Diagnostiko edo ebaluazio prozesuan egindako elkarrizketak, behar bezala erregistraturik eta hitzez hitz transkribaturik.
- Egindako testak eta ebaluatuek emandako erantzunak.
- Erabilitako bestelako ebaluazio tresnak, eta haien emaitza zuzenak (irudiak, jokaera katalogoak, historial akademiko edo medikoa...).

**ERREFERENTZIAK:** Testuko erreferentzia bibliografiko guztiak APA-VII arauen arabera jaso behar dira.

Oharra: Ebaluatuko den pertsona edo taldea ikasleak masterreko praktikak egiten diharduen zentroan edo testuinguru aplikatuetan (ebaluazio edo terapia psikologikoak egiten diren kontsulta edo zentroetan) egongo da.

## ESKU-HARTZE INDIBIDUAL EDO KOLEKTIBO BAT DISEINATZEA, ETA HORI EBALUATZEKO METODOLOGIA

**AZALA:** lanaren izenburua, eta ikaslearen eta zuzendariaren izenak.

**LABURPENA:** egindako lanaren puntu nagusiak bildu behar ditu. Luzera: 300-500 hitz.

## ESKU HARTZE PROGRAMAREN EDO TRATAMENDUAREN OINARRI TEORIKOA

- Esku-hartzea diseinatu eta gauzatzeko arrazoiak.
- Esku-hartzeari lotutako kontzeptuen definizioa eta gaiaren azalpen teorikoak hainbat ereduren arabera.
- Gai horretan erabilitako beste programa/esku-hartze/tratamendu batzuen azterketa. Balidazio azterketa enpirikoak eta emaitzak.

## **ESKU-HARTZE PLANAREN EDO TRATAMENDUAREN DESKRIBAPENA**

- Esku-hartzearen edo tratamenduaren helburu nagusiak eta zehatzak identifikatzea.
- Esku-hartze edo tratamenduaren helburuak lortzeko hainbat saio sistematizatzea (15 inguru). Sasoiak fitxa tekniko baten arabera egituratzea (helburuak, deskribapena, gogoetarako galderak, materialak, denbora...).
- Esku-hartze/tratamenduaren kronograma egitea.

## **EBALUAZIO METODOLOGIA ETA TRESNAK**

Ebaluazio tresnen deskribapena, bai esku-hartzearen osteko ebaluazioa egitekoak eta bai esku-hartzea amaitu eta sei hilabetera jarraipen ebaluazioa egitekoak. Tresna bakoitzerako zehaztu:

- Zein aldagai aztertzen duen: probak ebaluatuko dituen konstruktoen definizioa.
- Tresna ebaluatu, zuzendu eta interpretatzeko arauak.
- Azterlan psikometrikoak: baliagarritasuna, fidagarritasuna...

**ERREFERENTZIAK:** Testuko erreferentzia bibliografiko guztiak APA-VII arauen arabera jaso behar dira.

## **ERANSKINAK:**

- Ebaluazio tresnen protokoloak (erantzun orriak, itemekin).
- Diseinatutako esku-hartze programa edo tratamendua.

Oharra: Esku-hartzerako programa edo tratamendua diseinatu behar da, baina ez da nahitaez aplikatu behar. Hala ere, lanak eduki behar du programa gauzatzeko behar den informazio guztia, eta bera ebaluatzeko tresnak aplikatu, zuzendu eta interpretatzekoa.

## IKERKETA APLIKATU BAT EGITEA (EDO IKERKETA PROIEKTU BAT) DATU ENPIRIKOEKIN, MASTERREKO MODULUETAKO GAI BATEN GAINEAN, OSASUN PSIKOLOGIAREN EREMUAN

**AZALA:** lanaren izenburua, eta ikaslearen eta zuzendariaren izenak.

**LABURPENA:** egindako lanaren datu nagusiak laburtu behar ditu. Luzera: 300-500 hitz.

### IKERKETAREN OINARRI TEORIKOAK

- Azterlanaren arrazoiak.
- Aztergaiari lotutako kontzeptuen definizioa eta azalpen teorikoak, hainbat ereduren arabera
- Aztergaiaren arloan aurretik egindako ikerketak: azterlan enpirikoak eta haien emaitzak.

### AZTERLAN ENPIRIKOA

#### Azterlanaren helburu eta

#### hipotesiak Parte hartzaileak

- Azterlanean parte hartzen duten pertsonen ezaugarriak eman (sexua, adina, ikasketak, lanbidea...).
- Laginak hautatzeko prozedura azaldu.

#### Ikerketaren diseinua eta prozedura

- Ikerketaren diseinua: koerlazionala, esperimental...)
- Ikerketaren prozedura: Ikerketaren faseak, egindako atazak eta aplikatu berme etikoak (ebaluatuari jakinaren gaineko baimena eskatzea, ikerketaren mandatu etikoak betetzea...).

#### Ebaluazio metodologia eta tresnak

Aztertuko diren aldagaiak: aldagai sozio-demografikoen eta aztertuko diren aldagaien deskribapena eta definizioa.

Ebaluazio tresnen deskribapena:

- Zein aldagai aztertzen duen: probak ebaluatuko dituen konstruktoen definizioa.
- Tresna ebaluatu, zuzendu eta interpretatzeko arauak.
- Azterlan psikometrikoak: baliagarritasuna, fidagarritasuna...

#### EMAITZAK:

Datuen eta emaitzen analisisa (azterlanean lortutako datuen eta emaitzen deskribapenen taulak), edo bildutako datuekin egingo diren analisisetarako plan analitikoak.



## ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA

- Ondorioak. Hipotesiekin eta beste azterlan batzuekin alderatzea. Eraitzen azalpena eta haien gaineko gogoeta.
- Azterlanaren ekarpenak. Ikerketaren mugak. Irekitako ikerketa ildoak.

## ERANSKINAK

- Ebaluazio tresnen protokoloak (erantzun orriak, itemekin).
- Ebaluatutako pertsonaren baimen informatuak.

Oharra: Ikasleak ikerketa diseinatu behar du, baina ez du zertan enpirikoki gauzatu. Hala ere, lanean jaso behar da ikerketa egiteko behar den informazio guztia, bai eta ikerketaren ebaluaketarako tresnak erabili, zuzentzeko eta interpretatzeko informazioa ere.

**ERREFERENTZIAK:** Testuko erreferentzia bibliografiko guztiak APA-VII arauen arabera jaso behar dira.

## AZTERKETA TEORIKOA EGITEA OSASUNAREN PSIKOLOGIAREN ARLOKO GAI GARRANTZITSU BATEZ

**AZALA:** Lanaren izenburua, ikaslearen izena, zuzendariaren izena.

**LABURPENA:** egindako lanaren datu nagusiak laburtu behar ditu. Luzera: 300-500 hitz.

## OINARRI TEORIKOAK

- Azterlanaren arrazoiak.
- Aztergaiari lotutako kontzeptuen definizioa eta azalpen teorikoak, eredu teoriko desberdinen arabera.
- Aztergaiaren arloan aurretik egindako ikerketak: Azterketa enpirikoak eta emaitzak.

## HELBURUAK

Azterketa teorikoak Osasunaren Psikologiaren arloko gai garrantzitsu bati buruzkoak izan behar dira, eta askotariko helburuak izan ditzakete:

- 1) Arazo edo trastorno bat ebaluatzeko tresnen azterketa teorikoak.
- 2) Edozein adin taldetan (umeak, nerabeak, helduak, edadekoak...) arazo edo trastorno bat prebenitzeko edo tratatzeko esku-hartze edo tratamenduen azterketa teorikoak.
- 3) Bestelako azterketa teorikoak: kontzeptuenak, metodoenak eta abar.

## PROZEDURA

Azterketa egiteko prozeduraren, faseen eta jardueren deskribapen zehatza.

### **EMAITZAK:**

Ebaluazio tresnei buruzko azterketak: emaitzen atalean jaso behar dira aukeratutako ebaluazio tresnak. Bakoitzaren fitxa teknikoa egin behar da, honako ezaugarri hauek jasorik:

- Zein aldagai aztertzen duen: probak ebaluatzen dituen konstruktoen definizioa.
- Tresna erabili, zuzendu eta interpretatzeko arauak.
- Azterlan psikometrikoak: baliagarritasuna, fidagarritasuna...

Esku-hartze edo tratamenduei buruzko programen azterketak: Emaitzen atalean programen informazio zehatza eman behar da, adibidez egileak, argitalpenaren urtea, programaren helburuak, teknikak, jarduerak, ebaluazio tresnak, programa edo tratamendua balidatzean lortutako emaitzak.

### **ERANSKINAK**

- Ebaluazio tresnen protokolo guztiak (itemen orriak).

**ERREFERENTZIAK:** Testuko erreferentzia bibliografiko guztiak APA-VII arauen arabera jaso behar dira.

**OHAR OROKORRA:** gizakiekin egitekoak diren ebaluazio, esku-hartze edo ikerketek dagozkien eskakizun etikoak bete beharko dituzte.

## 5. MASTER AMAIERAKO LANA (MAL) EBALUATZEKO IRIZPIDEAK: IKASLE, ZUZENDARI ETA EPAIMAHAIKIDEENTZAKO ERREFERENTZIA

MALaren ebaluaketa osoa epaimahaiak egiten du, hurrengo errubrika jarraituz:

| EBALUAZIOAREN ARDATZAK  | EBALUAZIO PARAMETRO ZEHATZAK   | PUNTUAZIOA |
|---|--|------------|
| <b>AURKEZTUTAKO LANAREN MEMORIA</b><br><br><b>(0-7 puntu)</b> | <b>EDUKIAREN ALDERDIAK</b><br><br>Aztergaiaren garrantzia.<br><br>MALaren egitura, egindako lanaren tipologiaren arabera: irakaskuntza gidan proposatutako antolakuntzarekiko egokitzapena (ikus irakaskuntza gidaren eskemak).<br><br>Kasu praktikoak egitea, eta ebaluazio txosten psikologikoak prestatzea.<br><br>Norbanako edo taldeko esku-hartze bat diseinatzea, baita hura ebaluatzeke metodologia ere.<br><br>Ikerketa aplikatu bat (edo ikerketa proiektu bat) egitea datu enpirikoez baliatuta, Masterreko moduluetan sartutako gai bati buruz, Osasunaren Psikologiaren arloan.<br><br>Osasunaren Psikologiaren arloan garrantzitsua den gai baten azterketa teorikoa egitea.<br><br>Azterketa teorikoaren egokitasuna.<br><br>Metodologia, diseinu eta prozeduraren egokitasuna, egindako MAL motaren arabera.<br><br>Eskuratutako emaitzen eta ondorioen interpretazioaren egokitasuna.<br>MALaren edukiaren egokitasuna baloratzea: 0-6 eskala |            |
|   | <b>ALDERDI FORMALAK</b><br><br>Lanaren edukiaren aurkibide zehatza aurkeztea.<br><br>Idazkera argia eta koherentea izatea.<br><br>Txukuntasun tipografikoa eta ortografikoa.<br><br>APA-VII arauak errespetatzea bibliografian, egileen aipuetan eta kalitate zientifikoko txosten akademiko baten aurkezpenari dagozkion alderdi guztietan.<br>MALaren egokitasun formala baloratzea: 0-1 eskala  |            |
| EBALUAZIOAREN ARDATZAK  | EBALUAZIO PARAMETRO ZEHATZAK   | PUNTUAZIOA |
| <b>DEFENTSA – LANAREN AZALPENA</b><br><br><b>(3 puntu)</b>    | Azalpenaren kalitatea: egituraketa, jariotasuna, ahozko adierazpena, aurreikusitako denborarekiko egokitasuna.<br><br>Erabilitako multimedia baliabideen kalitatea (Power Pointeko aurkezpena, PRECI, bideoaren erabilera...)<br><br>Zehaztasuna, epaimahaiko kideek egindako galderei erantzutean.<br><br>Aurkezpena baloratzea: 0-3 eskala   |            |
| <b>Puntuazioa guztira</b>                                     |  |            |

Bestalde, MAL eko zuzendariren batek, zuzendu duen lanaren inguruan, LOTESLEA EZ den informe bat bidali nahiko balio lana baloratuko duen epaimahaiari, hurrengo galdetegia erabiliz egin dezake.

### ZUZENDARIEK MALAK EBALUATZEKO GALDE SORTA

Tutoretzapean izandako ikaslea:

Zuzendaria:

| Ebaluazioaren ardatzak  | Ebaluaziorako parametro zehatzak   | Puntuazioa eta informazio kualitatiboa |
|---|--|--|
| <b>AMAIERAKO MALaren MEMORIA (0-7 puntu)</b>  | <b>EDUKIAREN ALDERDIAK (0-6 puntu)</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikertutako gaiaren garrantzia.</li> <li>2. MALaren egitura egindako lanaren tipologia kontuan hartuta: Ikasketen gidaliburuan planteatutako antolamendura egokitu izana (ikus ikasketen gidaliburuko eskemak):           <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Kasu praktikoak egin eta ebaluazioaren txosten psikologikoak prestatu.</li> <li>➤ Bakarka edo taldean esku hartze bat diseinatu den, baita hori ebaluatzeke metodologia ere.</li> <li>➤ Ikerketa aplikatu bat diseinatu den datu enpirikoak erabiliz (edo ikerketa proiektu bat), masterraren moduluetan sartutako gaiez osasunaren psikologiaren eremuan.</li> <li>➤ Gai garrantzitsu baten errebisio teoriko bat egin den osasunaren psikologiaren eremuan.</li> </ul> </li> <li>3. Berrikuspen teorikoaren egokitasuna.</li> <li>4. Metodologia, diseinu eta prozeduraren egokitzapena egindako MAL motaren arabera.</li> <li>5. Lortutako emaitzak eta ondorioak egoki interpretatu diren.</li> </ol> |  |
| <b>MALaren PROZESUA (0-3 puntu)</b>   | <b>ALDERDI FORMALAK (0-1 puntu)</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lanaren edukiari buruzko aurkibide zehaztua.</li> <li>2. Erredakzio argia eta koherentea.</li> <li>3. Txukuntasun tipografikoa eta ortografikoa.</li> <li>4. APA-VII arauak.</li> </ol>  |  |
|   | <b>PROZESUAREN BALORAZIOA (0-3 puntu) .....</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Helburuak jarri, lana planifikatu, eta denboran egoki garatzen du.</li> <li>2. Jarrera positiboa lana egiteko zuzendariak emandako jarraibideen aurrean.</li> <li>3. Izandako tutoretza zerbitzu kopurua (aurrez aurrekoak, telefonoz, Skype...)</li> <li>4. Ikaslearen autonomia</li> </ol>   |  |
| <b>Zuzendariak MALari buruz egindako balorazio globala</b><br>(lanaren amaierako prozesua eta kalitatea (0-10 puntu)) |  |  |